

## BESTELAKO XEDAPENAK

### ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 688

*EBAZPENA, 2014ko otsailaren 12koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinen bidez argitaratzen baita zenbait diru-baliabide esleitzen dituen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia. Diru-baliabide horien bidez, hain zuzen ere, 2014ko ekitaldian finantzatuko dira Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren IV. kapituluan ezarritako laguntzak.*

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2014ko otsailaren 3ko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez, esleitu egin ditu zenbait diru-baliabide, zehazki, Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren IV. kapituluan ezarritako laguntzak 2014an finantzatzera bideratuko direnak. Lanbideren Estatutuetoako 10.2 artikulua (p) atalean xedatutakoarekin bat etorri (estatutu horiek maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onetsi ziren), Lanbideko zuzendari nagusiak eman behar du argitara erabaki hori.

Hori guztia kontuan izanik

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2014ko otsailaren 3ko bilkuran hartutako Erabakia, zeinen bidez zenbait diru-baliabide esleitzen baitira ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren IV. kapituluan ezarritako laguntzak 2014ko ekitaldian finantzatzeko (177/2010 Dekretua, Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa). Ebazpen honen eranskinean jasota dago erabaki horren testua.

Bigarrena.– Ebazpen honen bidez jakinarazten den Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzukoaren Erabakiak ondorioak izango ditu ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Hirugarrena.– Deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 12a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,  
ADOLFO ALUSTIZA FERNÁNDEZ.

## ERANSKINA

ERABAKIA, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK  
2014KO OTSAILAREN 3KO BILKURAN HARTUA, ZEINEN BIDEZ ZENBAIT DIRU-BALIABIDE  
ESLEITZEN BAITIRA FAMILIA ETA LANA BATERAGARRI EGITEKO LAGUNTZEI BURUZKO  
EKAINAREN 29KO 177/2010 DEKRETUAREN IV. KAPITULUAN EZARRITAKO LAGUNTZAK  
2014KO EKITALDIAN FINANTZATZEKO

Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren IV. kapituluaren xedea da langabezian inskribatuta dauden pertsonen kontratazioa sustatzeko laguntzak arautzea, hain zuzen ere pertsona horiek kooperatiba-sozietateetako besteren konturako langileak, langilea bazkideak edo lan-bazkideak ordezkatu ditzaten. Horretarako, kooperatiba-sozietateetako langileek egoera hauetakoren batean egon behar dute: seme-alabak edo mendetasun-egoeran edo oso osasun egoera larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartuta.

Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 53.1 artikulua 4. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik, urtero jakinaraziko da zein den dekretu horretan ezarritako laguntza-lerroa finantzatzeko esleitutako kredituen zenbateko osoa, edo, hala behar izanez gero, zein den zenbateko hori gehitzearen ondorioz sortutako zenbatekoa, betiere publikotasun-printzipioa betetze aldera.

Euskal Autonomia Erkidegoaren 2014ko ekitaldirako Aurrekontua Orokorrak onartzeko 2013ko abenduaren 20ko 4/2013 Legea onartu denez gero, egoki da aipatu laguntza-lerroen estaldurarako baliabide-ekonomien zenbatekoa argitara ematea.

Bestalde, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitako Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari dagokio, gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan enpleguko, enplegurako prestakuntzako eta autoenpleguko eta enpresen sorkuntzako programak kudeatzeko eskumena, indarrean dagoen urriaren 13ko 3/2011 Legean ezarrita dagoenez. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, 2011ko urtarrilaren 1ean martxan jarri zenez geroztik, bere gain hartu du laneko legedia betearazteko arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak kudeatzeko ardura, lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan; eta bere gain hartu du, halaber, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak eta, bereziki, Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzak enplegu-politika aktiboen arloan betetzen zituzten eginkizunen kudeaketa. Eginkizun horien artean dago 177/2010 Dekretuaren IV. kapituluaren ezarritako laguntza-programaren kudeaketa.

Kudeaketa-organoa aldatu denez gero, eta publikotasun-printzipioa eta segurtasun juridikoa betetze aldera, komeni da laguntzen onuradun izan daitezkeenei jakinaraztea diru-laguntzak kudeatzeko prozedurako zenbait alderdi aldatu egin direla eta ez datozela bat 177/2010 Dekretuaren ezarritakoarekin.

Horregatik guztiagatik, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2014ko otsailaren 3ko bilkuran, honako erabaki hau hartu du:

## ERABAKIA

Lehenengoa.– 2.200.000 euro esleituko dira Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren IV. kapituluaren ezarritako laguntzak 2014ko ekitaldian finantzatzeko. Esleipen hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari dagokion 41. sekzioko 3211-Enplegua programaren kontura egingo da.

Kopuru hori handitu egin daiteke, baldin eta indarrean dagoen legeriaren arabera aurrekontuetan aldaketak onartzen badira. Aldaketa horiek eginez gero, horren berri jakinaraziko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez.

Bigarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren laguntzen kudeaketari dagokionez, honako hauek jakinaraztea:

– Erabaki honetan zehaztutako diru-laguntzak lortzeko eskabideak honelaxe aurkeztu beharko dira: eranskinean jasotako eredu ofizialaren bitartez, zeina honako helbide hauetan baitago eskurgarri: //www.lanbide.net; Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zerbitzu Zentralak: Vitoria-Gasteizko Atxotegi kalea 1 (01009 pk); Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Lurralde Bulegoak; eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan Zuzenean-ko Bulegoak.

Horretaz gain, eskaerak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Lan Aktibazio Zuzendaritzak hartuko du bere gain eskabideak kudeatzeko eta izapidetzeko ardura, eta Lanbide erakunde autonomoko zuzendari nagusiak izango du ebazteko eskumena.

– Ebazteko epea, gehienez, sei hilabetekoa izango da, diru-laguntza eskaera aurkezten den egunetik aurrera, eta epe hori igarotakoan interesdunari ebazpenik jakinarazi ez bazaio, eskaera administrazio-isiltasunaren bidez baietsi dela ulertuko da.

– Zuzendari nagusiaren ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, horren aurka, berraztertze errekurtsoa jartzeko aukera izango da organo horretan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hirugarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari agintzea erabaki hau argitara eman dezala, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.



**ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA:**

Eskabideak aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango da, sei hilabeteko aldia amaitzen den datatik edo kontratua amaitzen denetik.

**ESKABIDEA NON AURKEZTU:**

Arabako Lurralde-eremuak: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zerbitzu zentraletan, Vitoria-Gasteizko (01009) José Atxotegi kaleko 1ean aurkitzen dena, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegotan.

Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde-eremuak: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegu-bulegoetan.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Zuzenean bulegoetan.

Nolanahi ere, eskatzailearen helbidea kokatzen den Lurralde Historikoan aurkeztu behar dira.

**JARRAIBIDEAK:**

- Hutsik ez egiteko eta zeure onerako, ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua irakur dezazula eskatzen dizugu (2010eko uztailaren 7ko EHAA 129. zk. argitaratua). Aipaturiko Dekretuaren bidez, lana eta familia bateragarri egiteko neurriak arautzen dira.
- Eskabide hau oso-osorik bete eta koaderno honetan zehazten diren agiriekin batera aurkeztu behar da. Horrela egin ezean, falta diren agiriak eskatuko dira, eta 10 eguneko epearen barruan aurkeztu ezik, eskabideari uko egiten zaiola ulertuko dugu.
- Eskabidea idazmakinez edo inprenta-letrarekin beteko da, eta lauki bakoitzean zenbaki edo letra bat jarriko da.
- Ez dira onartuko datarik gabe nahiz eskatzailearen izenperik gabe aurkezten diren eskabideak.
- Diru-laguntza Lan Aktibazioko Zuzendariak emango du ebazpen baten bidez Lanbideko Zuzendari Nagusiak sinatzeko eskuordetuta, eta, hartu izanaren agiriarekin bidaliko dizugu posta ziurtatuan.

**IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BILDU ETA TRATATZEAREN ARLOAN SEGURTASUN POLITIKA ONARTZEAL:**

Eman dizkiguzun datu pertsonalak ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZAKO DIRU-LAGUNTZAK izeneko fitxategi automatizatuan sartuko ditugu; fitxategiaren titularra LANBIDE Zuzendaritza da, eta enpleguarekin zein prestakuntzarekin lotutako diru-laguntzak kudeatzea eta kontrolatzea du helburu. Aldez aurretik emango zaio horren berri Datuak Babesteko EAEko Agentziari, hark baitaizka datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak.

Zure datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzea ere egongo da, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoko (abenduaren 13ko 15/1999) 21. artikuluan aurreikusi bezala eta Lege horrek bideratutako kasuetan.

Orobat, entitate eskatzaileak agiri hau sinatzerakoan honako hau bermatzen du: jasotako datu pertsonalen titularrei (haien titularitatea duten fitxategietan sartutako datuez ari gara) Datuen Babesaren Lege Organikoko 5. artikuluan ezarritakoaren berri eman zaie aldez aurretik, eta guztiek berariaz eman dute oniritzia.

Bestalde, datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauak batez, baduzu sartzeko, zuzentzeko, ezereztzeko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea, Datu Pertsonalen Babesari buruzko Lege Organikoko berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, baduzu LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua.

2014ko otsailaren 13a, osteguna

## 1.- ESKATZAILEAREN DATUAK.

Identifikazio Fiskaleko Kodea										Enpresaren Izena														
Jakinarazpenetarako helbidea																								
Kalea										Zenbakia					Solairua					Letra				
PK					Herria					Lurraldea														
Baltzuaren helbidea																								
Kalea										Zenbakia					Solairua					Letra				
PK					Herria					Lurraldea														
Harremanetarako pertsona										Telefonoa					Faxa					E-mail				
CNAE					Aktibitatea										Langile zk.									
Izaera Juridikoa										Jardueraren Sektorea														
Sozietate Anonimoa					01					Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza					A									
Kooperatiba					02					Erauzteko industriak					B									
Lan-Sozietate Anonimoa					04					Manufaktura industria					C									
Ondasun-Erkidegoa					05					Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura					D									
Sozietate Mugatua					06					Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa					E									
Bakarkako Enpresaria					07					Eraikuntza					F									
Sozietate Zibila					08					Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa					G									
Eraldaketa Nekazaritza-Sozietatea					09					Garraioa eta biltegiatzea					H									
Irabazi-Asmorik gabeko Elkartek					10					Ostalaritza					I									
Erantzukizun Mugatuko Lan-Sozietatea					11					Informazioa eta komunikazioak					J									
Administrazioa					12					Finantza jarduerak eta aseguruetaoak					K									
Enpresari-Elkartek edo Sindikatuak					13					Jarduerak higiezinekin					L									
Irabazi-Asmorik gabeko Bestelako Elkartek					14					Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak					M									
Bestelakoak					99					Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak					N									
Jarri (X) bat behar den tokian										Herri administrazioa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantzza					O									
										Hezkuntza					P									
										Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak					Q									
										Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak					R									
										Beste zerbitzu batzuk					S									
										Etxeetako jarduerak etxeko lanak egiteko langileei lana emateko moduan; etxeetako jarduerak ondasunen ekoizle moduan eta erabilera propioarako zerbitzuak					T									
										Lurraldetik kanpoko erakundeen eta antolamenduen jarduerak					U									

Jarri (X) bat behar den tokian

2014ko otsailaren 13a, osteguna

## 2.- ORDEZKATUTAKO LANGILEAREN DATUAK.

NAN										Izena										Abizenak									
/ /																													
Jaioteguna					Adina					Sexua					Egintza														
/ /					Emakumea					Gizona					Eszedentzia					Lanaldi-murrizketa									

Jarri (X) bat behar den tokian

Egintzaren hasiera-data					Egintzaren amaiera-data					Eguneroko lanaldia					Lanaldi-murrizketa gertatuz gero				
/ /					/ /					Osoa					% 100				
										Partziala					Murrizketaren portzentaila				

Lantokiaren helbidea

Kalea										Zenbakia					PK					Herria				

Titulazio-maila

Alfabetatu gabe		<input type="checkbox"/>		Oinarrizko ikasketak amaitu gabe		<input type="checkbox"/>		OHO, Titulu gabe		<input type="checkbox"/>		OHO, DBH, IEE1		<input type="checkbox"/>		LH1		<input type="checkbox"/>													
BBB, UBI, IEE2, Batxillergoa				<input type="checkbox"/>				LH2, Industri maisutza				<input type="checkbox"/>				Unibertsitateko diplomatua				<input type="checkbox"/>											
Unibertsitateko lizentziatua										<input type="checkbox"/>										Unibertsitateko doktorea										<input type="checkbox"/>	

Jarri (X) bat behar den tokian

## 3.- ORDEZKATUTAKO LANGILEAREN SEME-ALABAREN DATUAK.

Jaioteguna					Izena					Abizenak					Minusbaliatua																			
/ /															Ez					<input type="checkbox"/>					%					<input type="checkbox"/>				
															Bai					<input type="checkbox"/>										<input type="checkbox"/>				

Jarri (X) bat behar den tokian

## 4.- ORDEZKATUTAKO LANGILEAREN LAGUNTZA BEHAR DUEN PERTSONAREN DATUAK.

Jaioteguna					Izena					Abizenak					Minusbaliatua																			
/ /															Ez					<input type="checkbox"/>					%					<input type="checkbox"/>				
															Bai					<input type="checkbox"/>										<input type="checkbox"/>				
Ahaidetasun-maila																																		

Jarri (X) bat behar den tokian

## 5.- DIRULAGUNTZA JASO DEZAKEEN EGINTZA.

A	Ordezkatzeko Bitarteko kontratua:					B	Ordezkatzeko lanaldiaren luzatzea:												
	Eszedentzia						Eszedentzia												
	Lanaldi-murrizketa						Lanaldi-murrizketa												
					<input type="checkbox"/>										<input type="checkbox"/>				

Jarri (X) bat behar den tokian

2014ko otsailaren 13a, osteguna

## 6.- KONTRATATUTAKO LANGILEAREN DATUAK.

NAN				Izena				Abizenak			
Jaioteguna		Adina		Sexua		Langabea		Ezgaitua		Etorkina	
____ / ____ / ____				Emakumea		Hilabeteak		Ez		Ez	
				Gizona		LANBIDE-en inskribatuta		Bai		Bai	
Titulazio-maila											
Alfabetatu gabe		<input type="checkbox"/>		Oinarrizko ikasketak amaitu gabe		<input type="checkbox"/>		OHO, Titulu gabe		<input type="checkbox"/>	
								OHO, DBH, IEE1		<input type="checkbox"/>	
BBB, UBI, IEE2, Batxillergoa		<input type="checkbox"/>		LH2, Industri maisutza		<input type="checkbox"/>		Unibertsitateko diplomatua		<input type="checkbox"/>	
Unibertsitateko lizentziatua		<input type="checkbox"/>		Unibertsitateko doktorea		<input type="checkbox"/>				<input type="checkbox"/>	

Jarri (X) bat behar den tokian

## 7.- BITARTEKO KONTRATUAREN DATUAK.

Kontratuaren hasiera-data		Kontratuaren amaiera-data		Iraupena		Kontratutako lanaldia				
____ / ____ / ____		____ / ____ / ____		Egun zk.		Osoa		Portzentaila		100%
						Partziala				
Lantokiaren helbidea										
Kalea				Zenbakia		PK		Herria		

Jarri (X) bat behar den tokian

Agiri hau sinatzen baduzu onartu egiten duzu zuk emandako datuak, bertan jasotakoak, ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZAKO DIRU-LAGUNTZAK izeneko fitxategira sartzea. LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua Zuzendaritza da fitxategi horren titularra, eta enpleguarekin eta prestakuntzarekin lotutako diru-laguntzak kudeatzea eta kontrolatzea du helburu. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Euskal Agentziari emango zaio horren berri, hark baitaizka datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak. Datu horiek ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik. Datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauak betetze aldera, baduzu sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea, Datu Pertsonalen Babesari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, baduzu LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzura jotzea.

.....n .....eko .....aren .....an

Kontratuaren izenpea:

Izpta.: _____ (Inprenta letraz idatzi izenpetzailearen izena)



## 8.– KONTINJENTZIA ARRUNTENGATIK KOTIZAZIOA. LEHEN SEIHILEKOARENA EDO GUTXIAGO IRAUPENA.

## KONTUAN IZATEKO GAIAK:

- ✓ Jarraian 2 eta 6 hilabete artean irauten duten ordezkapenentarako, eskabideak aurkezteko hiru hilabeteko epea izango da, kontratua amaitzen den egunetik hasita. Epe osoari dagokion beheko laukitxoak beteko da.
- ✓ Jarraian 6 hilabetetik gora irauten duten ordezkapenen kasuan, eskabide bat aurkeztuko da kontratua indarrean dagoen sei hilabeteko aldi bakoitzeko, hiru hilabeteko epean, bakoitza amaitzen den datatik zenbatzen hasita.
- ✓ Azken ordezkapen-aldiak jarraian 6 hilabete baino gutxiago iraungo balu, eskabidea aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango da, kontratua amaitzen denetik zenbatzen hasita.
- ✓ 6 hilabetetik gorako kontratua lehenago amaituko balitz, diru-laguntzaren eskabidea hiru hilabeteko epean aurkeztuko da, amaitzen den datatik zenbatzen hasita.
- ✓ Eskabide bakar batean ez da inoiz diruz lagunduko 6 hilabetetik gorako eperik.

	Noiztik	Noiz arte	Lanaldiaren %	Egun-kop.	Kotizazio-oinarria	K.A. Kotizazioa
1	___ / __ / __	___ / __ / __			€	€
2	___ / __ / __	___ / __ / __			€	€
3	___ / __ / __	___ / __ / __			€	€
4	___ / __ / __	___ / __ / __			€	€
5	___ / __ / __	___ / __ / __			€	€
6	___ / __ / __	___ / __ / __			€	€
7	___ / __ / __	___ / __ / __			€	€
Guztira					€	€

2014ko otsailaren 13a, osteguna

Nik, \_\_\_\_\_ jaunak/andreak,  
 \_\_\_\_\_ enpresa ordezkatzuz, honakoa AITORTZEN DUT:

(Jarri «X» dagokion lekuan)

Lehenengoa:

Kasu honetan ez dago ekainaren 29ko Dekretuko 30.5 artikuluan aipatzen diren eragozpenetako bakar bat ere (ahaidetasuna eta bazkide izatea).

Bigarrena:

a) Ez gara laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen eskutik

b) \_\_\_\_\_ (e)k (\*) \_\_\_\_\_ €-ko laguntza eman digu

c) \_\_\_\_\_ (r)i (\*) laguntza eskatu diogu, eta ebazpenaren zain gaude

Hirugarrena:

a) Ez dago laguntza itzularazteko edo zehapena jartzeko prozedurarik eskatzailearen aurka, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo horren erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko diru-laguntzaren edo laguntzaren baten ondorioz.

b) Laguntza itzularazteko edo zehapena jartzeko prozedura ireki da eskatzailearen aurka, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo horren erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko diru-laguntzaren edo laguntzaren baten ondorioz.

Laugarrena:

a) Eskatzaileak ez du sexua dela-eta diskriminatzeagatik administrazio- edo zigor-arloko zehapenik jaso, ezta Emakume eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea dela-eta diru-laguntzen deialdietan parte hartzea debekatzen didan zehapenik ere.

b) Eskatzaileak sexua dela-eta diskriminatzeagatik edo Emakume eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea dela-eta diru-laguntzen deialdietan parte hartzea debekatzen dion zehapena jaso du.

Bosgarrena:

a) Minusbaliatuen Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 38. artikuluan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloko araudian xedatutakoa betetzen du eskatzaileak

b) Eskatzaileak ez du Minusbaliatuen Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 38. artikuluan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloko araudian xedatutakoa betetzen.

Seigarrena:

a) Eskatzaileak ez du diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzea dakarten zigor zein administrazio arloko zehapenik jaso, ezta horretarako desgaitzen duen legezko debekurik ere

b) Diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzea dakarten zigor edo administrazio arloko zehapenen bat jaso du eskatzaileak, edo horretarako desgaitzen duen legezko debekua

Zazpigarrena:

a) Lanpostuaren erreserba (eszedentziaren kasuan) edo ohiko lanaldira itzultzea (lanaldi-murrizketaren kasuan) bermatzen dio eskatzaileak ordezkaturako pertsonari (haren datuak eskabide honetako 5. zenbakiko idatz-zatian jasotzen dira).

b) Eskatzaileak ez dio lanpostuaren erreserba (eszedentziaren kasuan) edo ohiko lanaldira itzultzea (lanaldi-murrizketaren kasuan) bermatzen ordezkaturako pertsonari (haren datuak eskabide honetako 5. zenbakiko idatz-zatian jasotzen dira).

Zortzigarrena:

Baimena eman diot Lanbide-Euskal Enplegu elektronikoki egiazta dezan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete izana. (Baimenik ematen ez bada, hauxe aurkeztu beharko da: zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beti izana frogatzen duten ziurtagirien kopia)

Irakurri egin dut eta onartu egiten dut datu pertsonalak jasotzeko edo erabiltzeko buruz Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzak daraman segurtasun-politika, eskabide honetako 2. orrialdean jasotakoa.

\_\_\_\_\_ n \_\_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ an

Izpta.: \_\_\_\_\_  
 (Inprenta letraz idatzi izenpetzailearen izena)

(\*) Diru-laguntza ematen duen entitatea: Udala, Diputazioa, INEM, eta abar.

## HASIERAKO ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- Hirugarren interesdunaren datuen alta-fitxa (ordainketak banku bidez egiteko inprimaki normalizatu), entitateak edo eskatzaileak sinatuta eta dagokion banketxeak sinatu eta zigilatuta.
- Entitatearen edo eskatzailearen identifikazio fiskaleko txartelaren kopia.
- Diru-laguntza jaso behar duen kontratazioa oinarritu duen eszedentzia edo lanaldi-murrizketa egiaztatzen duen agiria, eskubide horietaz baliatu den pertsonari buruzko honako datuak jasotzen dituena:
  - Zein denboratan baliatu den ( hasiera data eta amaiera data).
  - Une horretara arte egiten zuen lanaldia eta hori zein proportziokoa zen lanaldi osoaren aldean, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboaren arabera.
  - Lanaldi-murrizketaren kasuan, murrizketa zein ehunekoa den egin ohi zuen lanaldiarekiko.
  - Lanaldia erreserbatzeko edo ohiko lanaldira itzultzeko bermea.
- Besteren konturako langileak ordezkatzeko badira, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa ordezkatzeko Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutako kontratuaren kopia. Kooperatiba-elkarteen kasuan, langile-bazkidearen edo lan-bazkidearen iraupen mugatuko kontratuaren kopia.
- LEABDaren kopia (Lan Eskaeraren Alta eta Berritze Dokumentua) Dokumentu hau ezda aurkeztu behar izango, hurrengo kasuetan:
  - Kontratutako pertsona, enplegu-eskatzaile gisa izen emanda egongo balitz Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan. Honako hau, eskaera orrian adierazi beharko da.
  - 27.2 atalean adierazitakoari jarraiki, lanaldi luzatua izanez gero, aurrez-aurretik egindako lanaldia partziala zela egiaztatu beharko da, baita ere kontratuaren aldaketa ordezkatzekoan.
- 27.2 artikuluan aurreikusitako lanaldi-luzatzen kasuan . Kasu horretan aurretik lanaldi-partzialeko kontratazioa zegoela eta kontratua-ordezkapena betetzeko helburuarekin- aldatu dela egiaztatu beharko da.
- Kontratutako persona agertzen den TC2 kotizazio-ereduaren edo Kotizazio Buletin Ofizialaren orrialdeen kopiak, eskatutako epeari dagozkionak.
- Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren edo, kooperatiba-elkarteen kasuetan, dagokion entitatearen eguneratutako egiaztagiria (3 hilabeteko antzinatasuna baino gutxiago, eskabidearen datan), laguntza eskatzen duen entitateak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta dituela egiaztatzen dutenak. Zor bat ateratzea lortzen duen entitateak ordainketak eguneratuta dauzkala joko da, baina agirien bidez egiaztatu beharko du hori guztia.
- Lan-utzialdia edo lanaldi-murrizketa betetzeko kontratatutako langilearen Enpresan baja eman bada, bai kontratua amaitu delako edo bai beste edozein egoeragatik, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren baja aitropenari buruzko ebazpena atxiki beharko duzu.
- Familia liburuaren fotokopia, non eszedentzia edo lanaldiaren murrizketa eskatzen duen pertsonaren seme/alabaren izena azaldu behar den.

## JARRAITZEKO ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- Web orrialdean agertzen den eskaera osorik bete behar da, kontratatutako langilearen sinadura eta enpresaren sinadura eta zigulua.
- Kontratutako persona agertzen den TC2 kotizazio-ereduaren edo Kotizazio Buletin Ofizialaren orrialdeen kopiak, eskatutako epeari dagozkionak.
- Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren edo, kooperatiba-elkarteen kasuetan, dagokion entitatearen eguneratutako egiaztagiria (3 hilabeteko antzinatasuna baino gutxiago, eskabidearen datan), laguntza eskatzen duen entitateak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta dituela egiaztatzen dutenak. Zor bat ateratzea lortzen duen entitateak ordainketak eguneratuta dauzkala joko da, baina agirien bidez egiaztatu beharko du hori guztia.
- Lan-utzialdia edo lanaldi-murrizketa betetzeko kontratatutako langilearen Enpresan baja eman bada, bai kontratua amaitu delako edo bai beste edozein egoeragatik, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren baja aitropenari buruzko ebazpena atxiki beharko duzu.
- Edozein aldaketa gertatuko balitz egiaztatzen duen beharreko dokumentazioa aukeztuko beharko litzateke.

Eskaera hau ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da erregistroan sarrera datatik. Epe hori igaro ondoren ebazpen espresik ematen ez bada, baietsizat hartuko da diru-laguntza jasotzeko eskaera

## ARGIBIDEAK

---

901 10 00 03 - 945 16 06 01

945 18 13 00

---

Arabako lurralde-eremuak: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu zentraletan, Vitoria-Gasteizko (01009) José Atxótegui kaleko 1ean aurkitzen dena, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzaren bulegoetan.

Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde-eremuak: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegu-bulegoetan.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Zuzenean bulegoetan.

Nolanahi ere, eskatzailaren helbidea kokatzen den Lurralde Historikoan aurkeztu behar dira.